

GURE IRAKURGELA

ZIKLO ARTURIKOAREN ADIBIDE ARGIGARRIA

Manu Lopez Gaseni

Mendebaleko kultur erreferenteak gogora ekartzeko ahaleaginean, beste urrats bat eman du Erein argitaletxeko "Gure klasikoak" bildumak "Artur erregearen heriotza" honen bitartez, kontakizun greko-erromatar, bibliko eta ekialde urrunekoel jarraipena emanez.

Ziklo arturikoak, zalduneriako kontakizunak izenez ezagunagoa, goi erdi aroan du jatorria, eta izugarritzko zabalkundea ezagutu zuen erdi aro osoan zehar, ahoz zein idatziz, bertsiio ugariaren bi-



Liburua:
"Artur erregearen heriotza"
Itzultzaile eta egokitzailea:
Juan Kruz Igerabide
Argitaletxea:
Erein, 2005

tartez. Artur pertsonaia historikoa eta haren inguruko elezahar ezaguna daude kontakizun guztien oinarrian, eta espainiar Kixote da haien neurrigabeko arrakastaren lekuko, Sarrionandiaren zenbait ipuinetan izandako eragina ahaztu gabe, noski.

Erakusgarri gisa eskaini zaigun kontakizuna, Artur erregearen heriotza, egile ezezagunekoa da, eta Arturren erregetzaren amaieraren berri ematen digu. Ordurako aski nabarmenak dira zaldunen arteko ezinikusi eta etsaigoak, zein bere alderdi edo ahaideengana bildurik, behialako fideltasun eta adiskidetasunen gainetik. Hala

ere, zenbait zaldunen "ohorekode" sonatua oraindik ikus daiteke narrazio honetan protagonista den Lancelot zaldunaren jokabide gehiengatzen. Juan Kruz Igerabideren egokitzapenari esker, arintasunez jarraitu daitezke Artur eta mahai biribileko zaldunen gorabeherak. "Gazteluen arteko txapelketa" batean sartuta baleude legez, Arturren zaldunak Grial saildua bilatzeari utzi, eta bate-tik bestera ibiltzen dira lehia-rik lehia, noiz urruneko lurraldeetan noiz Kameloten bertan. Hasieratik bertatik, ordea, Lancelot eta Ginebra erreginaren arteko maitasun debekatuak kutsatua ager-

tzen da kontakizuna, zalduna eta erregearen arteko harremana ustelduko baitzuen.

Bildumaren asmo pedagogikoari men eginez, alde zurretik mahai biribileko "nor da nor" moduko bat eskaintzen digu Igerabidek, pertsonaia nagusien historiaren berri emanez; azalpen labur eta argigarriak, inondik ere.

Laburbilduz, "Gure klasikoak" bildumak bere malla onari eutsi dio titulu berri honekin, eta, maketazio arazo potolo samarren bat izan arren, zalduneriaren gorabeherak gaurko gazteei atsegintasunez hurbiltzeko balio handiko obra bat plazaratu du.